

Gozatu udaberriko oporretan irakurtzen eta jolasean

2025



EIBAR

Juan San Martín Liburutegia
Biblioteca Juan San Martín



EIBAR

Euskara

Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Juan San Martin Udal Liburutegiak opor garaian familian euskaraz gozatzeko moduko jolasak eta liburu gomendioak proposatzen dizkizuegu.

Opor garaian seme-alabekin egoteko denbora gehiago dugunez, euskara eta irakurmena indartzeko ere une egokia da.

Oporretan irakurri eta egin jolas elkarrekin!

El Servicio de Euskera y la Biblioteca Municipal Juan San Martín os ofrecemos una selección de juegos y libros en euskera para disfrutar en familia durante las vacaciones.

Las vacaciones también son una buena época para ayudar a nuestros hijos e hijas a reforzar el euskera y la lectura mediante la diversión.

¡Las vacaciones son una buena ocasión para leer y jugar juntos/as!

Gozatu udaberriko oporretan irakurtzen eta jolasean

0-4 URTE



Anna Llenas

Koloretako munstroa



Christine Pym, Katie Daynes

Zergatik hiltzen dira gauzak?

Egin klik
gidako
irudietan eta
liburutegien
katalogora
eramango
zaitu



Cori Doerrfeld

Aireratzeko prest



Eoin McLaughlin, Polly Dunbar

Muxua



Esther van Den Berg

Ondo lo egin, txikitxo!



Lorena Martinez

B planeta

4


Gozatu udaberriko oporretan irakurtzen eta jolasean

0-4 URTE



Luis Amavisca, Mar Ferrero

Maite zaitugu, andereño



Guido Van Genetchen

Zorionak, Xagu!



Miryam Cameros Sierra

Azken erregina



Rébecca Dautremer

Jakomintxo



Sibylle Delacroix

Malkoak



Gozatu udaberriko oporretan irakurtzen eta jolasean

+ 5 URTE



Eloy Moreno, Pablo Zerda

Ikusezin : biren artean kontatzeko ipuinak

Irakurri bitartean, hurrek ustekabeko egoerekin egingo dute topo, pertsonaia bitxiekin, objektu itxura batean zentzugabeekin... Dena istorioaren didaktikaren parte da.



Peter Svetina, Jokin Mitxelena

Ogi banatzailea

«Ogia gorputzarentzako ogia da, ahotsak arimarentzako ogia». Ogi-banatzailea geure burua eta, oro har, pertsonak ezagutzeko egin behar dugun bidaiari eta bilaketari buruzko kontakizuna da.



Sébastien Perez, Justine Brax

Sirena esnatu zenean

Aelys sirenak ontzi bat ikusten duen lehen aldian liluratuta geratuko da. Umetatik entzun du gizakiei buruz hitz egiten, baina inoiz ez zuen imajinatu haiekin topo egin zezakeenik.

Gozatu udaberriko oporretan irakurtzen eta jolasean

+ 5 URTE



Susanna Isern, Esther Gili

Luisaren galtzak

Duela urte asko, emakumeek ezin zuten galtzarik soinean eraman. Hauxe da Luisa Capetillo-ren historia, garaiko arauetako desafio egin zien emakume ausart eta argiarena



Uxue Alberdi, Ruth Juan

Munduko karramarrorik ertainena

Karramarro harro asko dago arroketan. Itsasbeheran agertzen dira gehienak. Eguzkitara jartzen dira, disimulan elkarri begira. GARRO karramarroa ere tarteetan da, bere lekua hartu gurarik, bere izaera aldarrikatu nahian



Uxue Juárez, Neus Caamaño

Otto eta pintxo : kaktus bat nola besarkatu

Gaur Mariak kaktus bat oparitu digu. Arlet nire lagunarenak lore naranja bat du. Nireak, ordea, ez. Goiz osoan zehar so egin diot etxera itzultzeko ordua iritsi den arte. Pintxo izendatuko dudala erabaki dut.


Gozatu udaberriko oporretan irakurtzen eta jolasean

+ 8 URTE



Beatriz Berrocal, Verónica Aranda
Ibai Gorria

Shaka mutikoak eta haren lagunek igerilari handiak izan nahi dute Tokioko Joko Olinpikoetan irabazteko, 1964an. Horregatik jo eta ke entrenatzen dute Ibai Gorriko uretan.



ITSASOA
Dani Martirena, Ana Ibañez
Itsasoa bete urre

Itsasoa zaintzen duen farozain batek bere largabistetatik begiratzeko gonbita egiten dio irakurleari. Orain txipiroi ipurtargiak, orain marrazo gosetiak, sardina kilikariak, marmoka itsaskorrak eta Bizargorriren galeoi hondoratua!



Ibon Martin, Emmanuel Montiel
Labirinto magikoa

Kaixo! Sira naiz, eta nire lagunei eta niri ikaragarri gustatzen zaigu abentura zirraragarriak bizitzea eta elkarrekin ondo pasatzea. Sekretu bat kontatzea nahi? Superbotereak ditugu, nahiz eta beti ez duten behar bezala funtzionatzen...

Gozatu udaberriko oporretan irakurtzen eta jolasean

+ 8 URTE



Jana Bauer, Bojana Dimitrovski
Tirrin-tirrin istorioak

Ipuin sorta hau bi ikuspegitatik irakur daiteke: mutiko batena eta neska batena. Gaizki-hezitako piratei aurre egin, hipopotamoaren izebarentzat tarta bat prestatu eta zaldun ausartenak abesti batekin garaitu beharko dituzu!



Lur Gallastegi, Alai Zubimendi
Bahiketa jolas-parkean

Leku zoragarria izan daiteke jolas-parkea. Basakabiko lagunak, Gontzalek irabazitako lehiaketa bati esker, Europako jolas-parkerik handienera joango dira.



Miren Agur Meabe, Laura Benavente
Hiruretatik lauretara

Virgilia Enean, erlojuek ordu debekatua markatzen: goizeko hiruretatik lauretara. Mamuen ordua da. Bere iloba Iria bertan lo egiten geratzen denean, ordu kritikoan esnatzen da beti, eta gauza arraroak gertatzen dira...

Gozatu udaberriko oporretan irakurtzen eta jolasean

+ 12 URTE



Aksinja Kermauner
Dragoiak eguzkia irentsi zueneko

Protagonistek herrialde guztiz desberdin batera egindako bidaia egingo dute: beste hizkuntza bat, bestelako ohitura eta tradizioak. Eskolakide lagunak dira eta haien egoera emozionalaren arabera aztertuko dituzte Txinako jakituria eta eromena, ontasuna eta etsipena, modernitatea eta antzinako kultura,...



**Amancay Gaztañaga,
Alain Martinez Iribarren**
Martin Martina eta sorginen batzarra

Gabonetako oporren atarian, Martin Martinaren aitona-amonen herria komedianta eta argi dirdiratsuz bete den arren, izaki beldugarri baten erruz, aztikeria baten eraginpean dago. Desegingo duen erremedioaren bila, egoera uste baino gehiago nahastuko da.



Evald Flisar, Hana Tintor
Alizia Erokerien Lurraldean

Lurralde hori ez duzu mapa batean aurkituko. Ozeano Atlantikoaren erdian dagoen hautsez betetako uharte bat da. Bertako biztanleek baliabide natural guztiak agortu dituzte, buztinaren antzeko substantzia bat izan ezik, Pottington hiriburuaren azpian induskatzen dena.

Gozatu udaberriko oporretan irakurtzen eta jolasean

+ 12 URTE



Idoia Rodríguez Mondragon
Euritan

Euri deitzen naiz, hamabost urte ditut eta irakasleek diote lotsagabea naizela. Nik esango nuke ausarta naizela, sutsuegia, agian. Bizitza arrunta dut; eskola, gurasoak, adiskideak eta gure lehen maitasun-istorioak dira nire egunerokoa, egun batean, poltsikoan giltza ezezagun bat agertzen den arte.



Lur Gallastegi
Kakao zaporeko gauak

Alda diezaguke gau bakar batek bizitza goitik behera? Erasmus beka batekin joan da Añes Bordelera, Karla ikaskidearekin batera. Bertan ezagutu dute Pau kataluniarra. Añesek bizipen ahaztezinak izango ditu hiri berri horretan; ez denak onak, ordea, gertakari batek betiko aldatuko baitio bizitza.



Manu López Gaseni
Segundo erabakigarriak

Karim institutuaren ondoko terraza batean dagoela, bonba-motxila baten leherketaren lekukoa da. Atentatuaren egileen ondoan zegoen, baina onik atera da, ondo ulertzen ez duen ahalmen bitxi bati esker. Ertzaintzak komisaldegira eraman du galdeketa egiteko.

Gozatu udaberriko oporretan irakurtzen eta jolasean

KOMIKIAK



Eno

Itsasoak irentsi zuen hiria

Neska heroi, ausart eta sutsua, ganbera sekretu bat aurkitu beharra eta ezuste handiz beteriko bilaketa dira sail honen osagai nagusiak



Marie-Christine Thirry-Merlot

Aitor eta lanpa magikoa

Aitor, ameslari goxo eta joaldun emeritoak izpiritu gaiztoak lasaiki uxatzen ditu. Orain kostaldean bizi denez, bere "take off"-a hobetzen ari da eta egun zoriontsuak pasatzen ditu, marea beltza etorri arte bere ondorio ekologiko izugarriekin.



Josephine Mark

Zipotz

Hau da hau ezustekoa! Mapatxeena izandako etxera auzokide berri bat iritsi da. Pinpirin eta gainerako auzokideek (pinguino erregeak, koartzek eta untziek) bisitan joatea erabakiko dute. Zipotzek, ordea, halaxe izena duela jartzen baitu postontzian, hotz samar hartuko ditu.

Gozatu udaberriko oporretan irakurtzen eta jolasean

KOMIKIAK



Romain Pujol, Vincent Caut
Txantxak sortzeko makina

Atsegina da Biga, txantxa zalea, xelebrea, eta, gainera, itxuraldatzeko eta balentria itzelak egiteko superbotoak ditu. Ez dakigu zehatz zer animalia mota den, baina gauza bat argi dugu: umeen heroi kutuna izateko baldintza guztiak betetzen ditu!



Dejabu Panpin
Laborategia
Linbo planeta

Inork oroitzen ez duen leku bat, etxe-hondarrez inguratutako toki bat. Hondamendiaren artean gizaki bakarra bizi da: Numa, zortzi urteko neskatila. Goiz batean, jolasteaz inoiz aspertzen ez den lagun bat agertuko zaio: Linbo txakurra. Elkarrekin bidaia ziragarri batean murgilduko dira izarrei jarraituz




Alice Oseman
Bi mutilen enkontrua
Heartstopper 1

Bi mutilek elkar ezagutzen dute, lagun egin eta maitemindu egiten dira. Zailtasun berezirik gabeko gertaera bat da, baina badakigu bizitza ez dela horrelakoa. Are gutxiago 14 eta 16 urte bitartean badituzu.

Gozatu udaberriko oporretan irakurtzen eta jolasean



JOLASAK



ANIMALIAK

Irakurketa lantzeko animalien inguruko jolasa.



<http://animaliak.onoff.es/>



GURE LURRA

Zure seme-alabei modu dibertigarrian birziklatzen irakasteko jolasak eta jarduerak.



<https://gurelurra.eus/jolasak/>

TXIRRITX

IPUINAK, PUZZLEAK, MEMORIA JOLASAK...



KUKURRUKU

ELKARRIZKETA ERAKO KANTA-JOLASA



-Kukurruku!
 -Zer duzu?
 -Buruan min!
 -Zeinek egin?
 -Azeriak
 -Azeria non?
 -Errotapian
 -Zertan?
 -Garia biltzen
 -Garia zertarako?
 -Oiloari emateko
 -Oiloa zertarako?
 -Arrautzak jartzeko
 -Arrautzak zertarako?
 -Frijiduta jateko!

NOLA JOLASTU?

Ume txikiekin (2-3 urte), altzoan hartu eta umea gora eta behera erabili, kantatu bitartean. Handiagoekin (5 urtetik aurrera), umeak bi taldetan banatu eta elkarrizketa egin dezakete, parez pare jarrita. Elkarrizketa hori antzeztu egingo dute, keinuak eginez, eta gora eta behera mugi daitezke (orain zutik, orain makurtuta; hizketan daudenean, zutik).

ITURRIA

1. Ume txikiak altzoan hartuta kantatzen zuten (normalean helduek), umea gora eta behera mugituz.
2. Umeek gurdi gainera igota egiten zuten jolasa ere bazen, baserri girokoa. Ume bat pertikara igotzen zen, eta besteak azpian egoten ziren, burkoltzan, kontrapisua egiten. Elkarrizketa izaten zuten, pertika gora eta behera zerabiltela. Gero, beste ume bat igotzen zen pertikara. Jolas arriskutsua izan zitekeen pertika gainekoarentzat, jolasaren bukaeran gurdia denek batera kolpera uzten zutelako, eta baserri batzuetan debekatu egiten zieten gurdian jolastea.



KIXKILLA-MIXKILLA

ZENBAKIEKIN JOLAS EGITEKO KANTA

+ 4 URTE



ZER BEHAR DA?

Objektu txiki bat: giltzak izan daitezke, pilota bat, kaxatxo bat... Eta leku zabala.

GUTXIENeko PARTAIDEAK: 4

NOLA JOLASTU?

1. Ume denak, bat izan ezik, lurrean eserita jarriko dira, biribil bat osatuz. Zutik dagoenak objektu bat izango du eskuetan.
2. Lurrean eserita dauden hurrek kanta abestuko dute, begiak itxita eta eskuak begien aurrean jarrita. Bitartean, biribiletik kanpora dagoen umea kanpoko aldetik bueltaka ibiliko da, eta abestia amaitu aurretik eskuetan duen objektua lurrean utzi beharko du, umeren baten atzean. Eta bera ere han geratuko da, zutik, objektuaren ondoan.
3. Kanta amaitzen denean, ume guztiek begiak irekiko dituzte, eta atzera begiratuko dute, objektuaren bila. Bere atzean objektua ikusten duen umea jaiki egingo da, eta objektua jarri dionaren atzetik hasiko da korrika: harrapatu egin beharko du.
4. Objektua jarri duen umeak egin behar duena: biribilari bi buelta eman, eta hutsunea geratu den tokian eseri, beste umeak bera harrapatu aurretik. Bitarte horretan beste umeak harrapatzen baldin badu, zutik geratuko da berriro, objektua jartzen. Ez baldin badu harrapatzen, berriz, beste umearen txanda izango da.


Antzinako esaera-kanta hau zenbakiak ikasteko aproposa da, eta ume txikiekin erabiltzen da. Kantatu egin daiteke, beste barik, baina jolasaren bidez errazagoa da umeek kanta ikastea, behin eta berriz errepikatuko delako. Sokasaltorako ere aproposa izan daiteke. Lehenengo, abestia kanta daiteke, eta bukaeran kontatu: 1, 2, 3, 4, 5... saltaginak huts egin arte.



ZAPIAREN JOLASA

ZAPIAREKIN EGITEN DEN HARRAPAKETA JOLASA

+ 5 URTE



ZER BEHAR DA?

Zapi bat eta jolasteko leku zabala.

GUTXIENeko PARTAIDEAK: 5

NOLA JOLASTU?

1-Bi marra marraztuko ditugu lurrian, klarionarekin. Marren arteko distantzia umeen adinaren arabera alda daiteke: gero eta handiagoak, distantzia ere handiagoa. Adibidez, 6 metroko distantzia badago bi marren artean, erdibidean, 3 metrora, beste marka bat egingo dugu lurrian: hortxe ipiniko da zapia duena.

2-Zapia eutsiko duena nor izango den erabakiko dugu, eta gainerako umeak bi taldetan banatuko dira. Horretarako, zotz egin dezakete. Talde bietako kideen kopurua bera izango da, eta jokalaria bakoitzak zenbaki bat izango du. Sei baldin badira, batek 1 zenbakia izango du, beste batek 2 zenbakia... eta horrela 6 arte.

3-Talde bateko kideak marra baten atzean jariko dira eta besteak paran, beste marraren atzean. Zapiduna, berriz, erdian. Talde bakoitzetik aldiko bana irtengo da korrika. Zein? Zapidunak zenbaki bat esango du, eta zenbaki hori duten bi jokalaria (talde bakoitzetik bat) zapiaren bila abiatuko dira. Adibidez, zapia duenak "bi" esaten baldin badu, talde bakoitzeko "bi" zenbakidunak aterako dira korrika zapia hartzera.

4-Helburua: zapia hartu, eta bere taldekideei eramatea, marra dagoen tokiraino. Bidean doala, beste taldekoak harrapatzen baldin badu, zapia bestearentzat izango da. Zapia lortzen ez duena jolasetik kanpo geratuko da, eta bere zenbakia beste taldekide batek hartuko du.

5-Taldeetako bat jokalaria gabe geratzen denean amaituko da jolasa. Beste aukera bat: inor ez kanporatzea, eta umeak aspertutakoan edo puntu kopuru jakin batera iristean (adibidez, zapia 10 aldiz hartzea; zapia hartzen den aldiko puntu 1 lortuko dute) bukatzea jolasa



ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/banderetara-zapiaren-jolasa

TXINGOAN JOLASEAN

OIN BAKAR BATEN GAINEAN SALTOKA IBILTZEA

+ 6 URTE



GUTXIENeko PARTAIDEAK: 2

NOLA JOLASTU?

Txingoka egiten diren bi jolas jaso ditugu. Bietan zenbakiak eta laukiak marrazten dira lurrian, baina jolas bakoitzak bere berezitasunak ditu:

- **Harri-harrika:** Txingo jolas ezagunena. Objektua -harri txiki bat, normalean- eskuarekin jaurtitzen da lauki barrura: lehenengo 1 zenbakira, gero 2.era, ondoren 3. era... horrela zenbaki guztiak igaro arte. Txingoan joanda batu behar da harritxo, aldiro-aldiro, eta bidean ezin dira laukietako marrazkiak oinarekin zapaldu. Lurrian marraztutako laukiek gurutze forma hartzen dute, eta gurutzea sortzen den lekuan bi hankak jartzen dira lurrian: lauki bakoitzean oin bat. Buelta emateko lekuan atsedeen-lekua egon daiteke.
- **Txingor-gainean edo txindurrika:** Objektua -kaxa biribil zapal bat, normalean- 1 zenbakian ipintzen da, eta handik aurrera ostiko txikiak emanaz eraman behar da, zenbakiz zenbaki. Kaxa ezin da marren gainean geratu, eta oinarekin ere ezin da marrazkiak zapaldu. Lurrian marraztutako laukiek ez dute gurutze formarik, eta bukaeran atsedeen-lekua dago, buelta ematen den tokian. Hainbat izen erabiltzen dira txingo jolasak izendatzeko. Deba bailaran txingoka edo txingoan izenez gainera, hauek ere jaso ditugu: Aretxabaletan harri-harrike eta txantxikurke, Elgoibarren txingor-gaiñian (edo txingorriñian), Bergaran txindurrika eta txantxirrika, Eskoriatzan txantxitxuske, Antzuolan txintxurruka, Arrasaten losa-losaka eta hanka-koskoka.



ikasgela.ahotsak.eus/fitxak/harri-harrike-edo-txingoka

ikasgela.ahotsak.eus/fitxak/txingorriñian-edo-txindurrika





NOR DA?

Arreta, memoria eta hizkuntza garatzeko jolasa



<http://norda.onoff.es/>



TELESAILAK eta FILMAK EUSKARAZ

GOOKAPI

<https://www.gookapi.com/eu>



MAKUSI

<http://www.makusi.eus/ikusi>

**Gozatu udaberriko oporretan
irakurtzen eta jolasean**

Juan San Martin Liburutegia

Tel. 943708437

liburutegia@eibar.eus

<https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia>

Euskara Zerbitzua

Tel. 943708426

euskara@eibar.eus

<https://www.eibar.eus/eu/eibarko-euskara/euskara-saila>

PORTALEA

Bista Eder, 10-1

20600 Eibar



EIBAR

Udala | Ayuntamiento